



FORO DE BARRIO
AUZO-EZTABAIDAGUNEA
2018
ITURRAMA

Fecha / Data:	2018/03/13
Hora / Ordua:	18:30
Lugar / Kokalekua:	Iturramako Civivox
Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:	Iñaki Cabases
Participantes / Parte-hartzaileak:	11 emakume eta 23 gizon
Otros / Bertze batzuk:	
Moderadora / Moderatzailea:	Partaidetzako teknikaria: Elian Peña SDC: Iosu Dufur

Apertura / Hasiera

Elian Peña Herritarren Partaidetzako teknikariak bertaratuei ongi etorria emanaz abiarazi du 2018ko bigarren auzo-eztabaidagunea. Erakundeak eta herritarrak elkarrekin komunikatzeko esparru gisa definitu ditu eztabaidaguneari. Adierazi du ludoteka-zerbitzua dagoela beren kargu haur txikiak dituzten eta eztabaidagunean parte hartu nahi dutenentzat. Nabarmendu du eztabaidagunea zuzenean transmititzen dela YouTuberen bidez. Azaldu du nola funtzionatuko duen eztabaidaguneari: lehenbizi, Iñaki Cabases zinegotziak aurkezpena egingo du, gero parte-hartze txanda bat egongo da, eta, azkenik, eskaerak eta galderak egiteko txanda bat egongo da bukaeran.

El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

Iñaki Cabasesek barkamena eskatu du Iturrama auzoko aurreko eztabaidagunea bertan behera uzteagatik; saio honetarako gai-zerrenda azaldu du, eta gehitu du atal bakoitzean tarte bat egongo dela iradokizunak egiteko.

1. Pio XII.eko proiektua.
2. Ibilgarritasun-plana.
3. Eskaerak eta galderak.

1.- Pio XII.eko proiektua.

Proiektuaren helburua da pertsonak espazio publikoaren protagonista egitea; mugikortasun-bide jasangarriak gehitu nahi ditu, uste baitu Iruñea atzeratuta geratu dela arlo horretan. Hiru helburu planteatu dira Pio XII.eko proiektuan:



- Garraio publikoa sustatzea.
- Espaloietako bidegorria askatzea.
- "Zerbitzu anitzeko" izeneko erreia bat gehitzea.

Erran du bideo bat egin dela proiektua aurkezteko, eta horretan azaltzen direla lortuko diren abantailak. Jarraian, bideoa jarri da.

Partaidetza-prozesuari dagokionez, adierazi du iazko maiatzean onetsi zela plana, eta urrian aurkeztu zitzaizela auzotarrei. Azaroan bilera egin zen Iturramako interes-taldeekin.

Hurrengo astean, obren lizitazioa egingo da; azpimarratu du behin-behinekoak izango direla. Komentatu du bidegorria jarriko dela aparkaleku-bandaren ordean. Jakinarazi du 176 aparkaleku-plaza kenduko direla eremu urdinean, eta 76 plaza sortuko direla eremu gorrian. Espaloien ondoko lehenbiziko erreia zerbitzu anitzeko banda izango da (edukiontzia, aniztasun funtzionalerako aparkalekua, villavesa autobusetarako lasterbideak, eta abar). Bidegurutzeak aldatuko dira oinezkoen lehentasuna emateko eta metro gutxiago ibili behar izateko espaloiaz aldatzeko. Nabarmendu du oinezkoentzako kalitatea handituko dela. Planaren helburu nagusia lotuta dago mugikortasun jasangarria bultzatzearekin, bizikleta eta garraio publikoa erabiltzea sustatzearekin eta oinezkoen lehentasunarekin.

Aurreikusita dago obrak maiatzean hastea eta azaroan bukatzea; San Ferminen bestetan gelditu egingo dira. Argitu du obrak ez direla behin betikoak.

2.- Ibilgarritasuna.

Cabasések azaldu du hiru urtez azterlan bat egin dela kutsadurari buruz (LIFE-RESPIRA), eta horretan UAK parte hartu duela. Azterlanetik ondorioztatu da Iturrama dela Iruñeko auzorik kutsatuena.

Azterlanean oinarrituta, honako neurri hauek proposatu dira:

- Garraio publikoaren erabilera sustatzea, pribatuaren ordean.
- Planteatu da aukerarik onena dela lerroan aparkatzea, eta ez baterian.
- Baimendutako zirkulazioa murriztea.
- Bizikleta-aparkaleku segurua.
- Espaloia pixkanaka aldatzea.
- Segurtasunik eza eragiten duten beheko solairuak ixtea.
- Espazio publikoaren argiztapena hobetzea.
- Irisgarritasuna hobetzea bidegurutzeetan.

Azpimarratu du Iturrama adineko pertsonen auzo bat dela, eta beharrekoa dela ibilgarritasuna berreskuratzea.



El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du

Nork / quién propone	Tema/Gaia
Jose Ignacio López	<p>Adierazi du ez zekiela gai-zerrenda bat zegoela eta uste zuela eztabaidagunea “irekia” zela hasieratik.</p> <p>Beraren iritziz, udalak Pio XII.ari buruzko auzotarren ekarpenak entzun dituen arren, ez die jaramon handirik egin. Pio XII.ean bizi diren lagun gehienak ez daude proiektuaren alde. Uste du proiektuak arazoak sortzen dituela arazorik ez dagoen tokian.</p>
Jesús Legasa	<p>Hiria atsegin egitea baino arazo premiazkoagoak daude, beraren ustez, eta bi adibide jarri ditu: Urdazubiko Monasterioaren kalean dagoen zirkulazio-saturazioa, eta “aldirietako” aparkalekuak lokaztea euria egiten duenean. Ez du uste bidegorri-beharrik dagoenik Pio XII.ean.</p> <p>Ados dago helburu estrategikoarekin, baina ez proiektuaren planteamenduarekin. Balorazio politikoa egin du, eta horretan adierazi du “ezker-muturrak” baldintzatzen duela udala.</p>
Luis Landa	<p>Uste du ez direla jaso Pio XII.ari buruzko auzotarren eskaerak. Proiektuaren aurka dago, uste baitu zirkulazioan auto ilarak sortuko direla Logroñotik eta Lizarratik datozen autoekin. Beraren iritziz, bizikletek badute lekua dagoeneko, Pio XII.eko espaloiak zabalak baitira. Obra faraonikotzat hartzen du Pio XII.eko plana.</p> <p>Nabarmendu du larrialdi-zerbitzuek arazoak izan ditzaketela.</p>
Jon Millanes	<p>Galdetu du ea proiektua jendaurreko informazioa zabalduko den.</p>
Pello Andueza	<p>Galdetu du “turbo-biribilguneaz”. Uste du Urdazubiko Monasterioaren kalean lehen baino anitez zirkulazio handiagoa dagoela, eta ez dagoela aparkalekurik.</p>
Juan Carlos Berasategi	<p>Sinesten du proiektuaren asmo onean, eta adierazi du onuragarria izango dela auzoarentzat, espazioa irabaziko baita bizilagunentzat. Auzoko mugikortasunari dagokionez, konturatzen da bigarren ilara (Larraona ikastetxean, kasu) arazo handia dela villavesentzat. Halaber, uste du autoa sobera erabiltzen dela, gehiago erabili behar dela garraio publikoa eta aparkaleku handiak behar direla Etxabakoitzen, Pio XII.eko aldaketetarako prestatzeko.</p>
Juanjo	<p>Erran du Pio XII.ak istripu-kopuru txikia duela, eta ohartarazi du proiektuak agian eragin negatiboa izango duela horretan. Gainera, adierazi du planak arazoak eragin ditzakeela larrialdi-zerbitzuetarako.</p> <p>Iruditzen zaio gero eta oinezko gutxiago daudela Alde Zaharrean.</p>



Ainhoa Comerón, Pio XII.eko merkataria	<p>Udalak jakinarazi dio proiektua ez dela jendaurrera zabalduko. Eta bidegorria ez dela egongo bertze kolore batez margotuta. Txirringuluri taldeei galdetu die ea pozik dauden proiektuarekin, eta ezetz erantzun diote. Uste du proiektua berriro pentsatu behar dela.</p> <p>Adierazi du arrazoi politikoengatik baztertu direla auzotarrek plazaratu dituzten proposamen teknikoak.</p> <p>Zalantza du kutsaduraren gaia konponduko den edo lekuz aldatu baino ez den egingo.</p> <p>Merkataria den aldetik, interesa agertu udalak zirkulazio- eta pertsona-kontagailuak jar ditzan, proiektuaren eragina egiaztatzeko.</p>
Jose Ignacio López	<p>Autoek leku batean aparkatzen ez badute, bertze bat bilatzen dute, eta, hala, lekuz aldatzen da arazoa, konpondu orde.</p> <p>Iturraman, espaloiak, asfaltoa, argiak eta zebrabideak konpondu behar dira, bertzeak bertze.</p> <p>Erran du Abaurrea zinegotziak agindu zuela Urdazubiko Monasterioaren kaleko arazoa konponduko zutela eta ez dutela konpondu.</p> <p>Beraren iritziz, ezberdinak dira udalaren eta auzotarren irizpideak.</p>
Jesús Legasa	<p>Adierazi du “funtzio anitzeko” erraten zaion eremu berria arazo bat dela, aparkaleku-plazak ordeztzen baititu.</p> <p>Uste du bertze aukera batzuk kontuan hartu beharko liritekeela, hala nola tranbia edo trolebusa.</p>
Auzotarra (a)	<p>Uste du oro har ez dagoela kezka handirik kutsaduraren eta hondakinen gaiarekin; azpimarratu du Europar Batasunak ultimatum eman diola Espainiari. Erran du historikoki lehenetsuna eman zaiola garraio pribatuari, publikoaren kaltean.</p> <p>Nabarmendu du Pio XII.eko planaren aurka mobilizatu zirenetako inork ez zuela parte hartu Mankomunitateak HMJP azaltzeko deitu zuen bileran. Beraren ustez, saltegi txikien arazoa lotuago dago merkataritza-guneek sortzen duten lehiarekin, ezen ez auzoak “atsegin egitearekin”.</p> <p>Jakin nahiko luke zenbat lagunek hartu duten parte udalak abiarazitako prozesu partizipatiboetan. Gainera, uste du iraganean ez zegoela inolako ekimen partizipatiborik, eta oraingo gobernu-taldeak bai sustatu duela.</p>
Ainhoa Comerón	<p>Gurutze Gorria ere ez dago ados Pio XII.eko proiektuarekin.</p>
Luís Landa	<p>Aipatu du duela bi urte planteatu zituela bi kontu, eta ez zituztela kontuan hartu, eta horregatik ez duela ulertzen zer eginkizun duten auzo-eztabaidaguneez. Berriz plazaratu ditu bi kontuak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Konponbidea eskatu du Iñigo Arista / Nafarroa Behererako.- Auto ilarak Abejerasen.
Ramón	<p>Erran du lau hamarkadaz atzeratzen ari dela Gaztelugibeleko arazoa</p>



	(Urdazubiko Monasterio kalearen eta Pio XII.aren arteko bidegurutzea), eta arriskutsua dela oinezkoentzat zein automobilentzat. Auzotarrek zenbait alditan eskatu dute arazoa konpontzea, baina beti erantzun diete ez dagoela aurrekonturik horretarako.
Auzotarra (b)	Erran du lehenbiziko aldia dela auzo-etzabaidagunera datorrela, eta harrituta geratu dela lantzen diren gaiak ikustean, uste baitzuen gizartegaiak bertzerik ez zela landuko. Plazaratu du espazio estali bat behar dela hurrekin joateko.
Auzotarra (c)	Ez du ulertzen zergatik aldatu duten anbulatoriora doan villavesaren ibilbidea, orain geralekua urrunago baitago handik.
Jesús Legasa	Galdetu du zergatik erabil ditzaketen soilik irabazi asmorik gabeko erakundeek Civivoxak, eta ez norbanakoek.
Jose Luís (Pedro I.eko auzotarra)	Adierazi du ez duela ikusi hurbileko poliziarik Iturraman. Konponbide bat eskatu du Iñigo Aristako biribilgunerako, han arazo anitz ikusten ditu-eta.

Cierre / Amaiera

Zinegotziak saioa amaitu du.